

Zutik jausi da katua... eta bizirik atera da



Xabier Letona

@xletona

KATALUNIA WARS VII-REN errodajea amaitu zen larunbat arratsaldean Barzelonan eta biharamunean estreinatu zen Kataluniako Legebiltzarrean, ezus-teko aktore berria eta guzti: Carles Puigdemont, Generalitateko lehendakari berria. Epika, glamourra, poza, ikusmina... dena nahastu zen hainbeste esperotako filmaren lehen fotogrametan. Garrantzitsuena, ordea, filmak aurrera begira iragarritako jarraipena izan zen: Erresistentziak batasuna berregin du Lehen Ordenaren asmo inperialen aurrean eta lider berriak askatasunaren aldeko borrokan "arima uzteko" prestutasuna agertu du.

**Estatu egiturak sortzen
hasteak Madrilekiko
konfrontazioa ekarriko
dio, hots, bigarren
lanabesa, gaur gaurkoz
independentziaren
garra elikatzeko erregai
garrantzitsuena**

Kontaketa egiteko modu bat da, esan zitekeen baita ere Kataluniako zirkoko akrobatek mundua -gure mundutxo- asalatu dutela euren akrobazia ikaragarriekin. Katuaren zazpi bizitzak nola, Kataluniako prozesua hala: 2009an lehen manifestazio erraldoia egin zenetik behin eta berriro iragarri da haren amaiera eta honek eutsi, bai Artur Masek, bai erreferendumak, bai mobiliza-

zio ahalmenak, hauteskundeak... independentziaren atarian jartzeraino.

ATARIAN? Inork ez daki, horretarako filmaren VIII. edo IX. kapitulua ikusi beharko dugu. Baina katalan independentistak atari horretan kokatu dira, eta hori da autonomiaren marra gainditzeko lehen baldintza. Begirakunearen arabera fikzioa eta errealtatea nahasten diren prozesu honetan orain arteko unerik korapilatsuenean jarriko dira independentistak.

Hamazortzi hilabeteko jarduna izango du gobernuak eta marra gorri ugari gaindituko ditu. 2014ko "kartoizko erreferendum" harekin gurutzatu zuen lehen marra Generalitateak eta hark Mariano Rajoyren *laissez faire* politika-aren amaiera ekarri zuen. Estatua bestelako jarreretakoko prestatu da jada. Igandean Miquel Iceta PSCko buruak argi ihardetsi zion Puigdemonti Parlamentean: Espainiak legearekin erantzuten duenean, ez da "ez elkartasunik, ez errukirik" izango.

Errepika dezagun galdera, baina: independentziaren atarian? Bai eta ez, eta klabe nagusia izango da gizartean sostengu berriak irabazteko gai diren ala ez. Horretan datza Gobernuaren ahaleginik handiena datorren hilabeteetan: independentzia prozesuarekin jarraitu, azken hauteskundeetan lortutako %48a gainditzeko. Gaur egungo Legebiltzarrek legitimitate osoa du prozesu hori bideratzeko, baina ez du nahikoa izango %50a gainditzeko ez badu.

Hori da azken hiru hilabeteetan CUP eta Junts Pel Síren arteko gako nagusietakoa: nola lortzen da hori, En Comú biltzen duen esparru antikapitalista ho-

rretan arrantzan edo Katalunian nagusi den zentro-ezkerra horretan gehiago arakatuta? Lortutako akordioaren muiak sintesia azpimarratzen du: ahal den toki guztietatik. Bistan da prozesu independentistak 18 hilabete baino gehiago iraungo duela, Espainiarekin erreferenduma egiteko akordiorik ez bada bederen, baina une honetan, denak adierazten du Madrilen ez dela oraindik agertu halakorik bideratzeko seme-alabarik.

HIRU LANABES SENDO ditu fronte independentistak: lehena gutxieneko estatu egitura berriak prestatzea da; horrek Madrilekiko konfrontazioa ekarriko dio, hots, bigarren lanabesa, gaur gaurkoz independentziaren garra elikatzeko erregai garrantzitsuena, tentsioa izugarri goratuko baita; hirugarrena gobernagarritasuna da, austerizidioak ekarritako miseria bideraezina da hilabete edo urte gutxitan, baina jar daitezke horretarako bideak, eta herritarrak aldaketa zantzuak ikusten baditu, beste arma garrantzitsua izan daiteke. Noraino iristeko, ordea? Indarrak metatu eta legezko erreferendumerara. Etsigarria izan daiteke independentistarentzat, baina gaurkoz, eta indar harremanak kontuan hartuz, errealea dirudi. Posible da, halaber, independentzia aldarrikatzea eta Europar Batasuneko hainbat estatuk berau onartzea, baina une honetan hori sinesgaitzagoa da.

Fikzioaren ondoren, txistearen unea izan daiteke egunotakoa. Badoa Puigdemont Zarzuelara eta esaten dio Erregeari: "Agur eta ohore Felipe, Kataluniako independentzia lortzeko gobernuaren lehendakari izenda nazazun etorri naiz...". (Jarraituko du) ■